

Ada eta Joxepa Antoni emakume aintzindari

Ada eta Joxepa Antoni emakume aintzindari bertso-sorta honek “Emakumeak eta Teknologia” gaiaren inguruko sorkuntza-lanetarako **Ada Lovelace lehiaketaren saria** irabazi du 18 urtetik gorakoentzako kategorian

Doinua Mikel Laboa: **Martxa baten lehen notak**. Maialen Lujanbioren moldaketa

- | | |
|---|---|
| 1.
Informatika eta bertsoak
zeinen lanbide urrunak
baina badaude bai topatzea
gertakari amankomunak
bai batean eta bai bestean
kalean ezezagunak
izandu dira urtetan zehar
emakumeen jardunak
Gizartearen mamua dala
jakin zazue lagunak
Aspalditik aritu bait gara
egiten bietan lanak
Nahiko genuke gaurko egunez
ezkututik atera denak
e/ta e/torkizun hurbilean
bihur bitez ezagunak. | 4.
Informatikan ordea ez da
errepikatu joera
urte/ekin_aurrera egin ordez
pausoka goaz atzera
koka gaitezen hori_ulertzeko
begira fakultatera
duela hogeit ta hamar urte
iritsi ginen erdira
ingeniaritza izenak edo
telebistara zinera
eraman duten gure
friki arraro izaera
ez dakit zer arraio_iritsi den
gaur egungo gizartera
baina emakume gutxi datoz
une honetan gurera. |
| 2.
Mende berean jaioak dira
Ada ta Joxepa Antoni
London_zun batak ja/i/oterri
ta besteak Errenteri
Ingelesa ikasketaz izan
genun matematikari
Unibertsitatera_joaterik
ez tokatu besteari
Adak zukua atera zion
Babagieren makinari
eta Joxepa izan genuen
emakume bertsolari
testuinguru desberdinetan
emakume aintzindari
izan direla ezin ukatu
batari zein besteari. | 5.
Askoren ustez teknologiak
ez dira emakumeenak
hemen ordea oso argi dugu
haiek dira oker daudenak
teknologiaz gozatu eta
garatzen dohatsuenak
ondoan topa ditzakegu ta
hor doaz batzun izenak
Txelo, Edurne, Montse, Bittori
Arantza edo Elenak
asko ematen dioten eta
asko gozatzen dutenak
emakume ta_informatikari
punta puntakoak denak
gizarte honek gehiago_ikusi
beharko lituzkeenak |
| 3.
Ordut geroztik emakumeak
aritu dira bi/etan
baina_ego/era ez da berdina
informatika_ta bertsotan
Askok kosta zen lenengo_andrea
ikustea txapelketan
baina larogeit_ta seian izan
zen Kristina lehiaketan
azken urtetan aldatu dira
gauzak inguru horretan
emakume ugari dira gaur
kantatutzen oholtzetan
nahiz ta oraindik bertsoa ez den
parekidea benetan
nabarmena da lan ona egin
dutela bertso_eskoletan. | 6.
Egun hauetako_ospakizunek
ta sortutako giroak
balio beza ondorioak
izateko_positiboak
ez ditugu faltan ez arrazoi
eta ezta_ere gogoak
bertso eskolek egin bezala
sendotzeko gure erroak
Maialen, Miren, Uxue, Jone
Alaia bertsotakoak
Goiatz, Aizpea, Uxue ta abar
berriz informatikoak
etorkizunean senti beza
gizartearen gehiengoak
ez direla ez inondik ere
gutxiengo arraroak |

Joxepa Antoni Aranberri

Ada Lovelace

Diciembre 14th, 2015 | Category: [e-makumeak](#), [jardunaldiak](#) / [Jornadas](#), [Sariak](#) / [Premios](#)

2 comentarios a Ada eta Joxepa Antoni emakume aintzindari

Ada Lovelace lehiaketaren sariak / Premios del concurso « DIFusio@.

2015/12/14 en 21:15

[...] Ada eta Joxepa Antoni emakume aintzindari bertso-sorta Olatz Arbelaizena (18 urtetik gorakoentzako kategorian) Doinua Mikel Laboa: Martxa baten lehen notak. Maialen Lujanbioren moldaketa. [...]

Aurkibidea (DIFusio@, 2010-2016) « DIFusio@.

2017/02/15 en 14:16

[...] Ada eta Joxepa Antoni emakume aintzindari [...]
